

Produktua

Gure produktua berritzailea da, inoiz ez delako holako produktu bat ikusi eta oso eroso delako erosketak egiterako momentuan.

Antolakuntza hau izango da; erosketako orga normalak erabiliko ditugu, haiek lortzeko karro enpresa bati erosiko dizkiogu, bestalde, tablet txikiak karroan sartuko ditugu horretarako elektronika enpresa batekin harremanetan jarriko gara. Karroaren atzekaldean pantaila ezarriko dugu, pantaila horren fiuntzioa, erosketak egiterakoan erosiko dugun gauzen zerrenda bertan sartzea da, gastatu nahi dugun diru kantitatea jarriko dugu eta tabletak kalkuluak egingo dizkigu, jarritako diru kantitatea baino gehiago sartzen badugu karroan pantailak abisua emango digu "pipi" bat eginez. Gure produktua saltzeko lehendabizi enpresa bat aurkitu beharko dugu, haiekin harremanetan jarri ahal izateko eta haiek gure produktua aztertu ahal izateko.